

Interes orokorreko xedapenak, buletinetan argitaratuta (E.A.E., E.H.A.A., A.L.H.A.O., B.A.O., G.A.O. y E.B.A.O.), **2020ko otsailaren 29tik martxoaren 6rako astea.**

I.- HITZARMEN KOLEKTIBO SEKTORIALAK:

Bizkaiko Aldizkari Ofiziala 2020/03/04

- Erabakia Lan eta Justizia Saileko Lan eta Gizarte Segurantzako Bizkaiko lurralde ordezkariarena. Honen bidez ebazten da Bizkaiko Industria Siderometalurgikoaren Hitzarmen Kolektiboaren 2020ko soldaten berrikuspenak erregistratu, gordailu egin eta argitaratzea (hitzarmen kodea 48001985011981). **7 or.**

Estatuko Aldizkari Ofiziala 2020/03/05

- Ebazpena, 2020ko otsailaren 24koa, Lanaren Zuzendaritza Nagusiarena, zeinaren bitartez zuzentzen diren 2019ko abenduaren 27koaren akatsak. Horren bitartez, aireportuetako lurreko asistentzia zerbitzuen sektorearen IV. hitzarmen kolektibo orokorra erregistratzen eta argitaratzen da. **2020-3206 xedapena – 1 or.**
- Ebazpena, 2020ko otsailaren 24koa, Lanaren Zuzendaritza Nagusiarena, zeinaren bitartez zuzentzen diren 2019ko uztailaren 4koaren akatsak. Horren bidez, ehungintza eta jantzigintzaren industriaren hitzarmen kolektibo orokorra erregistratzen eta argitaratzen da. **2020-3207 xedapena – 1 or.**

II.- XEDAPEN OROKORRAK:

E.A.O. (Estatuko Aldizkari Ofiziala)

2020/02/29

- **GORTE NAGUSIAK.- Premiazko neurriak.-** Ebazpena, 2020ko otsailaren 20koa, Diputatuen Kongresuarena, zeinaren bitartez agintzen den argitara dadila otsailaren 4ko 3/2020 Errege Lege-dekretuaren baliozkotze akordioa. Errege Lege-dekretu hori sektore jakin batzuetako kontratazio publikoaren arloan Europar Batasuneko zenbait zuzentarau Espainiako ordenamendu juridikoan sartzeko premiazko neurriei buruzkoa, aseguru pribatuei buruzkoa, pentsio-plan eta -funtsei buruzkoa, tributuen eta zerga-auzien arloei buruzkoa da. **2020-2897 xedapena – 1 or.**

- **OGASUN MINISTERIOA.**

- **Balio erantsiaren gaineko zerga.-** HAC/174/2020 Agindua, otsailaren 4koa, zeinaren bitartez aldatzen den martxoaren 18ko EHA/769/2010 Agindua, zeinak onesten baitu komunitate barruko eragiketen laburbilketaren 349 aitortpenaren eredia, bai eta diseinu fisiko eta logikoak eta non, nola eta noiz aurkeztu behar den ere; aurkezpen telematikorako baldintza orokorrak eta prozedura ezartzen diren, eta abenduaren 23ko HAC/3625/2003 Agindua aldatzen duen. **2020-2898 xedapena – 18 or.**
- **Zerga informazioa.-** HAC/175/2020 Agindua, otsailaren 4koa, zeinaren bitartez aldatzen den abenduaren 1eko EHA/3481/2008 Agindua, zeinak onesten baititu baloreen, aseguruaren eta errenten urteroko informazio aitortpenaren 189. eredia, bai eta eredu horren barneko orriak ordenagailuz zuzenean irakurtzeko moduko euskarriekin ordezkatzeko diseinu fisiko eta logikoak eta aurkezpen telematikorako baldintzak eta prozedura ezartzen dituen. **2020-2899 xedapena – 4 or.**
- **Ondarearen gaineko Zerga.-** HAC/176/2020 Agindua, otsailaren 20koa, zeinaren bitartez onesten den negoziozientzietan negoziatutako baloreen zerrenda, horien 2019ko laugarren hiruhilekoari dagokion batez besteko negoziozientzia balore eta guzti, 2019ko Ondarearen gaineko Zergaren aitortpena eta balore, aseguru eta errenten urteko informazio aitortpena egiteko. **2020-2900 xedapena – 18 or.**
- **Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga.-** HAC/177/2020 Agindua, otsailaren 27koa, zeinaren bitartez onesten den Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren amatasun kenkariaren ordainketa aurreratua eskatzeko 140. eredia, eta arautzen den hura aurreratzeko eskubideari eragiten dioten aldaketen jakinarazpen. **2020-2901 xedapena – 11 or.**

2020/03/04

- **GIZARTERATZE, GIZARTE SEGURANTZA ETA MIGRAZIOEN MINISTERIOA.-** Gizarte Segurantzaren Bilketa. - Ebazpena, 2020ko otsailaren 21ekoa, Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiarena, zeinaren bitartez aldatzen den 2004ko uztailaren 16ko ebazpena, Gizarte Segurantzaren bilketaren kudeaketaren alorreko funtzioak zehazteari buruzkoa. **2020-3075 xedapena - 2 or.**

E.H.A.A. (Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria)

2020/03/04

- **LEHENDAKARITZA.-** 20/2020 DEKRETUA, otsailaren 25ekoa, zeinaren bidez garatzen baita motibazio politikoko indarkeria-egoeran gertatutako giza eskubideen urraketen biktimen errekonozimendu eta erreparaziorako prozedura. **1322 xedapena – 8 or.**

2020/03/05

- **LAN ETA JUSTIZIA SAILA.** - AGINDUA, 2020ko otsailaren 24koa, Lan eta Justiziako sailburuarena, langileek, dagozkien ordainsariak jasota, 2020ko apirilaren 5eko Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeetan parte hartzeko arauak ematen dituenak. **1360 xedapena – 3 or.**

A.L.H.A.O. (Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofiziala)

2020/03/06

- **FORU AGINDUAK (OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA).-** 93/2020 FORU AGINDUA otsailaren 26koa, 318 eredu onesten duena (balio erantsiaren gaineko zerga). Ondasun emateak edo zerbitzu prestazioak ohikotasunez egiten hasi aurreko likidazio aldiei dagozkien tributazio proportzioak erregularizatzea. **654 xedapena - 5 or.**

B.A.O. (Bizkaiko Aldizkari Ofiziala)

2020/03/05

- **AHALDUN NAGUSIA.-** Iragarkia, Bizkaiko Foru Aldundiko Lege Aholkularitza, Informazioaren Segurtasuna eta Datu Babesa Bideratzeko Atalarena, Bizkaiko Foru Aldundiaren Gobernu Kontseiluaren 2020ko otsailaren 18ko Erabakiaren onarpena argitara ematen duena. Erabaki horren bidez, Bizkaiko Foru Aldundiko Datu Pertsonalen Tratamendu-jardueren Erregistroa sortu, arautu, mantendu eta argitaratzen da, Datu pertsonalen tratamenduari dagokionez pertsona fisikoak babesteari buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduaren 30. artikularekin bat. **1 or.**

G.A.O. (Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala)

E.B.A.O. (Europar Batasunaren Aldizkari Ofiziala): Europar Batasunaren Aldizkari Ofiziala

2020/03/05

- 2020/367 Zuzentaraua (EB), 2020ko martxoaren 4ko Batzordearena, zeinaren bitartez aldatzen den Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2002/49/EE Zuzentaruaren III. eranskina, ingurumen zarataren ondorio kaltegarriak ebaluatzeko metodoak ezartzeari dagokionez (1). **5 or.**

Kepa Bilbao Zubiaur

Tfno.: 94 425 25 15 Fax: 94 423.22.95

e-mail: serviciosjuridicos@mutualia.es

.....

MUTUALIA, MUTUA COLABORADORA CON LA SEGURIDAD SOCIAL N.º 2
HENAO, 26 - 48009 BILBAO